



UDALBILTZA

KOMUNIKAZIOA

JABI ASURMENDIREN HITZARTZEA

Udal ordezkariak, auzapez eta alkateak, *elkarte eta erakunde ezberdinetako ordezkariak, egun on eta eskerrik asko etortzeagatik, baita gerturatu zareten kazetari guztiei ere.*

20 urte bete ditu Udalbiltzak aurten. Bai, 20 urte igaro dira dagoeneko 1999ko irail hartatik, urteak eta urteak ez direnak ere bai, ahaleginak eta gogoak, irudimena eta proiektuak, oztopoak eta errepresioa, irriak eta malkoak, baina Udalbiltzak bere bidea egin du eta hemen gaude bizirik, gogotsu eta zuen lekukoaz harro aurrera egiteko asmoarekin. Horregatik, zinez eskertu nahi dut Udalbiltzako zuzendaritzako zein ekipo teknikoko kideek emandako guztia eta aitortu zuen lana, kemena eta engaiamendua.

Niretzat ohore handia da sorreratik miresten dudan erakunde nazional honetan ekarpena egiteko aukera izatea. Ohore eta ardura handia da Jon Jauregiren, Loren Arkotxaren, Mertxe Aizpuruaren eta Luix Intxausperen lekukoa jasotzea. Arduraz bai, baina ilusio handiz ere heltzen diot ardura honi.

Eskerrik asko Batzorde Eragileko kideei konpromiso honi ere heltzeagatik; Udalbiltzako langile nahiz langile ohiei, partzuergokideak zareten eta hitzarmenak sinatu dituzuen udalei eta Udalbiltzarekin eskuz-esku lan egiten duzuen elkarte eta erakundeei. Mila esker denei.

Bide batez, besarkada handia bidali nahi diogu AMI-ri eta president Josep Maria Cerverari. Izan ere, urtez urte harremana estutzen joan gara bi erakundeon artean.

Mila esker bihotzez atxiki zareten hautetsi guztiei. Lortu dugu! Denon artean, 1000koaren langa gainditu dugu eta oraindik ere atxikipen kopurua gorantz doa. Eskerrik asko talde honetan jarri duzuen konfiantzagatik eta babesagatik. Eta



nola ez, mila esker ekitaldi hau posible egin duzuen eta parte hartu duzuen guztiei.

Bi hamarkada hauetan Udalbiltza unean-uneko euskal gizartearen kezka eta beharretara egokitzen joan da bere proiektuen bidez, Euskal Herriak bere osotasunean dituen erronkei, nazio mailako erantzuna emanaz. Jakitun gara, une honetan ere ditugun desfioei erantzuteko udalgintza eredu eraldatzaile batean oinarritzen den Udalbiltza sendoa behar dugula. Hortaz, are babes zabalagoa lortzeko lanean jarraituko dugu. Denon artean, bide egiten ari gara eta gure herrietan politika eraldatzaileak garatzen goaz pixkanaka. Udalbiltzak zuen bidelaguna izan nahi du norabide horretan.

Aurretik ditugun erronkak ez dira makalak: Elikadura eta energia burujabetza, Euskal Herriaren barne kohesioa, herrien garapena, turismo eredu jasangarria... Udalbiltza guzti honi nazio mailako erantzuna emateko ezinbesteko erakundea dugu; hain zuzen ere, Euskal Herri osoko hautetsi eta udalen elkargunea da. Herrietatik eta kontzejuetatik gertu egon garen eta lekuan-lekuko arazoei aurre egiten laguntzeko prest gauden erakundea gara.

Herrien garapena eta kohesioa gure ardatz nagusietarikoak diren heinean, lurralde desoreka eta herri txikien despopulazioak, zinez kezkatuak gaizka. Izan ere, geroz eta populatuagoak diren hiri eta metropolien parean, gure herri txikiak eta, oro har, landa eremua, husten ari dira. Egoera lasgarri honi, ekonomia sozial eraldatzailearen bidetik, buelta ematea posible dela sinisten dugu, gaitasunak batuz eta kontzientziazioa landuz, gure herri txikiek bizirik jarrai dezakete.

Hala bada, udalgintzatik garapenaren eta burujabetzaren bidean, urratsak eman daitezkeela konbentziturik gaude. Horretarako, udalen, hautetsien, erakundeen eta eragileen arteko lankidetzak premiazkoa da, denak bat eginez eta elkartasunean, zubiak eraikiz, esperientziak zein ezagutzak partekatuz, senidetzeak bultzatuz; finean, Euskal Herria eginez.

Mila esker guztioi berriro ere.